

HITZAURRE GISA

Eduarne Brouard

Korrikako arduraduna. AEK

Helbide elektronikoa: edurne@aecknet.net

Ezer baino lehen honakoa aitortu beharko nuke: halako lan hau enkargatzeko deitu zidatenean, asunto honi ezin izango niola inolaz ere aurre egin pentsatu nuen. Batetik, gauden datetan gaudelako (KORRIKA 15 gain-gainean dugu eta hori geure jarduera osoa baldintzatzen duen gaia da), eta bestetik, idazle kaskarra naizen neurrian, zail egiten zaidalako holakoetan sar-tzea. Gero, hobeto pentsatuz eta gaiaren garrantzia ikusita, erabaki nuen merezi zuela gure aldetik esfortzu berezi bat egitea, hori merezi duelako HEA gaitzat hartzen duen monografiko batek, BAT aldizkariak duen prestigioa izanda. Hori dela eta, sartu naiz kontu honetan.

Has gaitzen, bada, gaiaren haritik tiratzen. Gure ustez, Helduen Euskalduntze Alfabetatzeak badu, dudarik gabe, karakter estrategikoa. Horixe da, beraz, abiapuntua. Euskararen berreskurapen prozesuan, hizkuntzaren bizirau-penean eta hemendik aurrerako guztietan HEAk estrategikoki duen garrantziaz aspaldian jabetu ginen, eta horixe da geure lanaren ardatza. Ez dago euskararen etorkizuna bermatzerik tarteko belaunaldia bermatuta ez badaukagu. Tarteko

belaunaldi hori da (batzuek, lotsagabeki nire ustez, galdutzat eman duten belaunaldi hori) euskararen transmisioaren giltzarria, euskara hizkuntza osoa badela eta izan daitekeela erakutsiko diguna: ez haur hizkuntza, ez eskolakoa, ez etxerako lanetan baino erabiltzen ez dena, baizik eta hizkuntza oso bat, geure artean normaltasunez erabiltzen duguna, familiatik hasten dena (seme-alaba eta guraso) eta edozein esparru, une eta gaitan erabil daitekeena. Hortxe kokatzen dugu guk, beraz, arloaren estrategikotasuna, eta hortik abiatzen gara lan horri benetan heldu behar diogula esateko. Honekin ez dugu inondik inora esan nahi bestelako arlo batzuk ez direla garrantzitsuak edo eta estrategikoak. Baina, bestelako arlo batzuk (eskola, unibertsitatea...) ondo barneratuta dauden inpresioa izaten dugu sarri, eta ez, aldiz, HEAren arlo hau. HEAren estrategikotasuna behin eta berriz azpimarratu beharreko gaia da, duda barik. Izan ere, ez da txantxetako "yo no sé, pero mis hijos sí" etenga-be errepikaturik entzun behar izate hori.

Egia esan, HEAk hainbeste arazorekin egiten du topo. Alde batetik, euskararen eremua

hiru administrazio desberdinen artean banatuta dago, eta horren ondorioz hasieratik ageri dira egoera desberdinak leku batetik bestera. Argi dago ez dela berdin euskararen egoera, helduei dagokienez, EAEn edo Nafarroan edo, zer esanik ez, Iparraldean. Hor arazo gordin bat daukagu, ez daukagulako estrategia bateratu bat aurrera eramateko modurik helduen euskalduntzean inziditzeko.

Beste alde batetik, eta hortik aparte, sakabanaketa historiko bat ere badago HEAren sektorean, mundu honetan urte luzetan ibili garenok ondo ezagutzen duguna, eta urte gutxiagotan ibili direnek ere argi ikus dezaketena, oraindik ere aztarnak edo oihartzunak entzun egiten direlako gure euskaltegietan.

Bestalde, instituzioekin EAEn izandako liskarrak, Nafarroan eta Iparraldean daudenak... beste arazo larri bat dira gure ohiko jardunerako.

Eta laugarrenik, hasierako puntuarekin lotuta, beti aipatzen dugun arazoa: HEAk gizartean daukan ulermen falta, hau da, oraindik ere ez gara gai izan geure ingurukoei behar den moduan ulertarazteko haurrak euskalduntzea ezinbestekoa bada ere (eta bada, jakina!), euren guraso eta enparauak euskaldundu ezean, euskara bigarren mailako hizkuntza izango dela betiko. Azken arrazoi hau "prestigio" faltarekin ere lotu beharra dago. Euskara beharrezko ez zaigun bitartean, gizarte mailan "prestigiatura" ez dagoen bitartean, zaila da benetan, pertsona helduak egin behar duen saiakera hori egitera bultzatzea.

Aldiz, esan dezakegu, 2007ko udaberri honetan, arazo hauetako batzuk leuntzen hasi gara, eta gauzak hobeto doazela.

Sektore moduan, inoiz baino batuago gaudela begi-bistakoa da; sakabanaketa historiko horien gaitzitze bidean jarri gara, eta ahalegin handiak egiten ari gara sektoretik estrategia bateratuak planteatzeko eta gure lanean eraginkorragoak izateko.

Era berean, sektorea inoiz baino sendoago dago bere oinarrietan. Nora joan nahi duen eta

nondik joan nahi duen inoiz baino argiago dauka, eta gainera, inoiz baino profesionalagoak gara mundu honetan ari garenok. Asko kostata lortu ditugu nolabaiteko baldintza minimoak profesionaltasunerako salto egiteko, eta horrek arrisku batzuk ekar baditzake ere, duda barik, hainbat abantaila dakartza: honetara dedikatu ahal izateak honetan indar gehiago jartzea dakar azken finean.

Bestalde, metodologian eman diren aurrerapausoak ikaragarriak izan dira. *Euskalduntzen* metodo hura, *Jalgi Hadi*, AEKren horma-irudiak... Nork uka diezaike urteetan edukitako arrakasta eta balioa? Baina, lelo zaharrari atxikita, "ahal denik eta euskaldun gehien, ahal denik eta denbora laburrenean", helduak euskalduntzeko metodologian egin ditugun aurrerapenak amestu ere ez genituen egiten neu hasi nintzeneko urteetan. Gaur, komunikazioa da ardatza eta hori da garrantzitsua, baina gainera, hizkuntza osotasunean hartuta, ikasleak badu bere intereguneen arabera, beharren arabera eta norberaren ahalmenen arabera jokatzeke eta erabiltzeko aukera. Eta horrek egunerokotasunean ere emaitzak ekartzen ditu. Jakin badakigu guk nahi baino gehiagotan datorrela ikaslea tituluaren behar soilagatik, ez euskara benetan ikasteko eta erabili ahal izateko, baina, zorionez, gaurko irakasteko modu honek, titulua ateratzeko baino ez bada ere, ikasleak komunikatu behar horretan jartzen du indarra. Ikasiko badu, euskaraz beharko du. Horra beste indar-gune bat.

Aipatu beharrekoa da ere, gizarteak berak, orain arte eduki ez ditugun aukera ugari ematen dizkigula, teknologiarekin lotutakoak (Internetek berak aukera asko eman dizkugu: auto-ikas-kuntzarako, norberak ikasteko, datu gehiago edukitzeko...). Horiek erabiltzen ikasi dugu eta, gainera, ikasteko prestutasuna eta gogoia erakutsi dugu; izan ere, teknologiaren erabilera egoikiak ekar diezazkigukeen abantailak geure aldeko indar-gunetzat hartu behar ditugu.

Duda barik, aipatzekoa da administrazio batzuekiko harremanetan, konkretuki EAeri

dagokionean, eman den eraldaketa, elkarlanean aritzeko eta elkar laguntzeko prestutasuna. Horrek lagundu egin digu, eta lagundu digu denean, sektoreko batasunean bertan ere lagundu digu-eta; eta hori, zintzoki aipatu beharreko zerbait da. Beste batzuek ez dute inolako pausorik eman, baina eman dutenen lana aipatu beharrekoa da.

Azken indar-gune bat, eremuaren zabalatasuna da; guk Euskal Herri osoa dugu euskalduntzeko. Bezero potentziala eta mundua hor daukagu, eta hori indar-gune garrantzitsua da.

Gauzak horrela, hemendik aurrerako erronkak neure ustez zein diren esanez amaitu gura nuke.

Duda barik, ikasle gehiago lortzea da bat. Gaur egun dugun ikasle kopuruarekin, Euskal Herria euskalduntzeko beste ehun bat urte beharko genituzke, eta ezin gara horren zain egon. Horixe, beraz, geure erronkarik handiena, geure ustez "prestigio" eta sustatze kanpainekin batera lotu (eta lortu) behar dena; jendea erakarri egin behar dugu, eta konbentzitu egin behar dugu: euskara ikasteak merezi du, eta, gainera, euskararen berreskurapenean ni neu euskalduntzea ez da anekdotikoa, estrategikoa baizik.

Bestalde, euskarak gelatik kanporako pauso hori eman dezan lan egin behar dugu. Hor dauke mintzapraktika programak, zenbaki honetan bereziki aipatzen direnak. Badaude, baita, euskaltegitik plazara ateratzeko planak ere. Eta batez ere, eta ez HEArekin lotuta bakarrik, baina bai oso lotuta, hor dago erabilera planak bultzatzearen erronka. Euskaltegietan egiten dugun hori kaleratzea eta kalean egotea lortu behar dugu, horrek gure ikasleei indarra emango baitie euskaraz mintzatzeko. Horrek normaltutzan beste pauso bat ekarriko du; gure ikasleek kalean euskaraz hitz egiten duten neurrian, euskalduntzeari, bere osotasunean lagunduko diogulako. Gure ikasle gehienek eremu erdaldunetan duten arazo handiena, baita euskaldun izatea lortzen dutenean ere, erabilerarako joerarik ez edukitzea da, eta beraz, urte gutxiren buruan

ikasitakoa galtzea. Erabilera ez da bultzatu behar kalean euskara entzutea politagoa delako bakarrik. Erabilera euskara ez galtzeko behar dugun gauza bat da. Euskara ikastea konpromiso pertsonala ere baden neurrian, egiten ari garen esfortzu guztiak erabilgarritasun konkretu batera eramaten ez bagaitu, onerako baino frustraziorako eta denbora galtzearen sentipenerako bide ere izan daitekeelako.

Etorkizunari begira, honakoa azpimarratu nahiko nuke: HEA bidegurutze batean dagoela uste dut benetan, zalantzak eta galderak hamaika ditugula, nora joko dugun eta zelan egingo dugun zehazki plazaratzea falta zaigula... Azken batean, etorkizuna ez dugula samurra. Baina honako hau ere esan beharra dago: gaur baino hobeto sekula ez garela egon. Eta gaur, gainera, badaukagula diagnosi bat, batasun bat, eta, batez ere, borondatea, oso benetakoa, honekin aurrera egiteko. Beraz, hitzak balio badu, HEAri etorkizun oparoa opa nahi diot. Ondorengo orrietan doazkizue bide horretan egindako hainbeste lan txukun. Bejondeizuela!•

